

Donostiako Diputazio Jauregian, 1983.eko urtarrilaren 28an arratsaldeko lauetan bildu da Euskaltzaindia. Etorri dira: Luis Villasante euskaltzainburua, P. Altuna, J. Hiriart-Urruty, A. Irigoyen, E. Knörr, F. Krutwig, P. Lafitte, E. Larre, F. Ondarra, J. San Martin eta J. M. Satrustegi euskaltzainak. J. A. Arana, J. M. Aranalde, M. Atxaga, J. Etxaide, P. Goenaga, X. Kintana, J. L. Lizundia, J. M.<sup>a</sup> Torrealday, M. Ugalde, A. Zatarain eta J. J. Zearreta euskaltzain urgazleak.

J. Haritschelhar eta X. Diharce jaunek ezin etorria adierazi dute.

Ohi den otoitzarekin hasi da batzarra.

Aurreko bi agiriak onartu dira.

Juan Inazio Goikoetxea "Gaztelu" euskaltzain urgazlearen hil berria eman du Euskaltzainburuak, eta J. San Martin jaunak egin du haren bizi eta idazlanen aipamena.

Norbert Tauer Pragako euskaltzale eta gure euskaltzain ohorezkoa oso gaixorik dagoelako berria eman du J. M. Satrustegi idazkariak.

Luis Mitxelenak jaso beharra duen OSSIAN saria aipatu du L. Villasante jaunak, eta zorionak emateaz beste alde, datorren martxoaren hamarrean, Gasteizen, saria emango zaion ospakizunetan antolatzaile eta partaide izatea eskaintzen dio Euskaltzaindiak bere Ikersail-buruari.

### Goizeko bilkuraren berri

Goizeko batzarraren berri eman du idazkariak. Bi gai azpimarratu ditu: azken urteko lanen Memoria eta Gramatika batzordearen bilera. Memoria edo oroit-idazkia ikuspegi orokorrez eman du eta bi ataletan banatu ditu gaiak: 1982.eko egin-kizunak alde batetik, eta eskuartearen diren lanen ildotik 1983.eko ardura nagusien aurkezpena.

Memorian aipu diren zenbait barne arazo bideratzeko jardunaldi batzu aurtengitea birronartu da.

Gramatikaren Iruñeko Kongresoa antolatzeari buruz egin da bigarren bilkura. Batzordearen txostenak "*Perpaus bakunen Gramatika*" hartu du gaitzat. Eskema antzera, noski, eta gero letorzkeen beste lan batzuren bultzagarri. Batek egiteko gai zabalegia denez zenbait lankide arduratuko dira, bakoitzak bere atala aztertuz.

Batzarre Nagusia 1984.eko irailean izango da. Lanen aurre-zirriborroa aurtengitean bertan urte azkenerako aurkeztu behar da, eta 1984.eko ekainerako azken emaitza aski landua. P. Goenagak eman du batzorde honen berri. Bertan dira: P. Lafitte, buru, J. Haritschelhar buru-ordea, P. Altuna, J. A. Mujika eta Miren Azkarate, batzarkide, P. Goenaga, idazkari, eta M.<sup>a</sup> Pilar Lasarte, idazkari-ordea.

**Batzordeen azalpena**

Maileguzko hitzei buruz Uztaritzen egindako jardunaldien berri eman du bere txostenean Euskaltzainburuak.

Herri Izendegi batzordea bildu dela esan du J. L. Lizundiak. Arazo nagusia, eztabaida zenbait zuzendu eta eskari ofizialei erantzuna ematea da.

Azkue Biblioteka. J. A. Aranak eman du urteko lanen kontu eta oroit-agiria batzordeak bere bilera onarturik aurkeztu du.

Espasa-Calpe argitaldarekin izan dituen harremanak aipatu ditu J. M. Satrustegik. Azkue-ren "Euskalerraren Jakintza" birrargitaratzeko hitzaurrea eskatu dute eta Satrustegi izendatu du horretarako Euskaltzaindiak.

Dialektologia. Grabaketak nola egin diren ikusteko egin du batzordeak bere bilera. J. M. Etxebarriak agertu du oraiko asmoen berri. Pundu hauek aipatu ditu: orain arteko lanen akatsak aztertu, zinta guzietatik atal batzu aukeratu eta traskribapena egitea. Datorren hilerako erantzun bat emango dute.

Pertsona Izendegia. Hirugarren argitalpenerako izenak aurkeztu ditu J. M. Satrustegik. Zerrenda horien kopiak banatu dira euskaltzainen artean eta otsailaren azkenera arte bidal daitezke oharrak.

**Txostenak**

P. Altunak beste lanbide batera joan behar zuen eta hasieran eman du, "Leizarragaren zenbait izen sintagmari buruz", bere txostena. Argibide askorekin eta euskara mintzatuan adineko pertsonak erabili ohi dituzten esaerekin oinarritu du lana.

J. San Martin literatura sorketarako laguntzak banatzeko epai-mahaian egona da Madrilan, eta bere esperientzia aurkeztu du gaurko txosten honetan. "Kultura Ministeritzak autoreei ematen dien laguntzaz" mintzatu da. Baliagarri gerta daiteke noizbait guretzat.

Besterik gabe amaitu da batzarra.

*Euskaltzainburura*  
*Fr. LUIS VILLASANTE*

*Idazkaria*  
*JOSE M.<sup>a</sup> SATRUSTEGI*